

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA - COVER LEHIAKETA 2024

BALDINTZAK:

1. Ez zaie adin mugarik jarriko parte hartzaileei.
2. Abestia grabatzeko SOINU TXIKI EDO/ETA PANDEROA SOILIK erabili daitezke, bestelako instrumenturik ez da onartuko, ez eta oinarri instrumental elektro-melodikorik ere.
3. Aukeratutako pieza originala, edozein garai edo estilokoa izan daiteke, beti ere, EUSKAL KANTUA izan behar du.
4. Abestiak letrarik balu erabiliko den hizkuntza EUSKARA izango da.
5. Letrak ez baztertzailea izan behar du.
6. Bertsoak inon argitaratu gabea izan behar du.
7. Edozein formatutan sortutako piezak onartuko dira: bakarka, bikoteka edo taldeka. Beti ere, taldekide kopuruak bertsoaren behar melodikoei erantzungo die, grabaketan ahots bakoitzeko jotzaile bat hobetsiko delarik.
8. Talde bakoitzak nahi adina pieza aurkeztu ditzake.
9. Abesti bakoitza bideoz grabatuta aurkeztu behar da, ahalik eta kalitate onenean eta taldeko partaide guztiak zuzenean jotzen azaltzen direla.
10. Studioko grabaketa, bideoan aurkeztutako instrumentazioarekin eta agertzen diren pertsonekin soilik grabatuko da, bideoan aurkeztu bezala.
11. Estudiorako emandako denbora aurkeztutako jotzaile eta abeslari ezberdinen kopuruaren arabera izango da.
12. Abesti guztien erabilera EHTeren eta kantuaren egilearen esku geratuko da.
13. Masterraren jabetza EHTerena da eta lizentziak egin beharko balira edo masterra saldu beharko balitz artistari jakinarazi beharko zaio eta lehendabizi berari eskainiko zaio.

HAUTAKETA:

Epaimahaia EHTeren zuzendaritzak osatuko du eta bere irizpideen arabera aukeratuko ditu abestiak.

SARIA:

laz eta aurten aukeratutako abestiekin CD bat argitaratuko da. Estudio grabaketa 2024ko uztailean zehar burutuko da.

Epaimahaiak hala erabakiz gero grabaketa bertan behera gera daiteke.

IZEN-EMATEA:

Bideoa trikitixa@trikitixa.eus helbidera bidali behar da 2024ko **ekainaren 10a** baino lehen.

Emitza ekainaren 19an argitaratuko da www.trikitixa.eus webgunean.